

## **BERMEOKO UDALAREN KIROL PATRONATUKO ZERBITZUAK EMOTEARI JAGOKOZAN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUAN ARAUDIA**

### **LEGE OROKORRA**

1.- ARTIKULUA. Toki Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 43.b) eta Abenduaren 28ko, 88/39 Legearen 41.B) artikuloez ezarritakoaren arabera, Udal honek, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren zerbitzu ezbardinak emoteari jagokozan Prezio Publikoak esijituko dauz.

### **HELBURUA**

2.- ARTIKULUA. Prezio Publiko honen helburua, Areneko Udal Kiroldagiko eta Artza Udal Frontoiko instalakuntzetan Udalaren Kirol Patronatuak emondako zerbitzuen erabilpena da.

### **ORDAINDU BEHARRA**

3.- ARTIKULUA. Ordaindu beharra, zerbitzua emotea eskatzen dan une berean sortzen da, eta baita urteroko Urtarrilaren batean, abonatua balitz edo eta, zerbitzua erabiltzen dan une berean, beste kasu batetan.

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

4.- ARTIKULUA. Ordenantza honek arautzen dauzan zerbitzuak erabiltzen dabenen ondorengo ezbardintasunak bereizten dauz:

a) Sendikoak: Sendi bateko senideez osotua; kasu honetan, ordaindu beharko dauana Sendiburua izango da, eta bere ordeaz, bere ezkontidea.

b) Norbanakoak: Zerbitzua erabiltzen dauan berak ordaindu beharko dau. Adin txikikoak balira, ordaindu behar dabena, gurasoak edo euren tutoretza daukienak izango dira.

c) Erakundeak: Zerbitzua emotea eskatzen dauan legezko pertsonak ordaindu beharko dau.



Eta, edozein modutan ere, zerbitzuak emotea eskatzen daben edozein legezko edo norbanako pertsonak dagoz ordaintzera behartuta.

## DIRU KOPURUAK

5.- ARTIKULUA. Ordenantza honetan araututako prezio publikoen zenbatekoari jakokonez, zerbitzu eta ekintza bakoitzarentzat, ondorengo ataletan ezarritako tarifetan

### a) ORDAINKETAK:

#### ARENEKO KIROLDEGIKO KIROL TXARTELA

Abono berezia: ikasle, langabe eta 65 urte baino gehiagoko bermeotarrentzat	63.13 €
Erroldatutako banakoa	84.17 €
Erroldatutako familia	161.42 €
Amama/aititagaz erroldatutako familia	199.46 €
Kanpoko familia	253.65 €
Kanpoko banakoa	143.89 €

**\*Erroldatutako familia ugariak %25eko beherapena izango du ordainketan.**

**\*Bermeon erroldatutako elbarrituek beherapena jasoko dabe norberaren elbarritasun portzentajearen arabera**

**Inskripzio gastua: 6,01 € banakoa, 12,02 € familiakoa.**

### b) SARRERAK:

umeak, zahar saridunak eta langabeak	2.5
21 urtetik gorakoak	4.5

#### BONUAK: 10 sarrera ( 2 hileko iraupena)

Umeak, zahar saridunak eta langabeak	21
21 urterik gorakoak	36

### c) ERRESERBAK:



Squasha (orduko)	2,70
Kiroldegiko kantxea, gela bat (orduko)	12,20
Kiroldegiko kantxea argiagaz (orduko)	15,80
Igerilekuko kale bat alokatzea orduko	15,80
Kanpoko frontoia (orduko)	4,20
Kanpoko frontoia argiarekin (orduko)	8,30
Kanpoko kantxa (orduko)	6,10
Kanpoko kantxa argiarekin (orduko)	7,90
Lasaitze gunerako sarrera	3,30
Lasaitze gunerako(11 saioko bonoa)	29,00

d) Txartela egitea eta armairuetako giltza galtzea	3,60
---	------

e) ALOKATZEAK/SALMENTAK

Squasheko pilotak	2,00
Kandadua 3 konbinaketa	3,70
Kandadua 4 konbinaketa	4,70
Igerilekuko txanoen salmenta	3,00

f) IKASTAROAK

Astebarruko umeen igeriketa - saio bi -	19
Astebarruko umeen igeriketa - 3 saio-	22
Umeen igeriketa asteburuan – saio bi -	22
Aquagima 3 saio astean	25
Aquagima 2 saio astean	19
Gimnasia erritmikoa	22
Helduen igeriketa astean ordu bi	21
Helduen igeriketa astean 3 ordu	28
Boxeo-kickboxing	15
3. Adineko Gimnasia abonaduentzat	5
3. Adineko Gimnasia abonadu ez direnentzat	20
Dantza modernoa	19
Arte martzial mistoak	20
Umeen karatea	18
Helduen Karatea	24
Saio solteak	2,6
Saio solteen hileroko bonoa	25
Bizkar eskola, pilates, tai-chi	30



OHARRAK:

a) Abonaduak ez direnek ikastaroetan parte hartzeko publikatutako prezioen bikoitza ordaindu beharko dabe.

b) \* 3. Adineko gimnasia: ikastaro osoko salneurria da (urritik ekainera).

c) Gabonetako, aste santuko eta udako ikastaroen prezio publikoak bere sasoian Kirol Batzordeak onartuko dauz.

d) Urdaibai kirol txartela Bermeon aterata eta Bermeoko kirol txartela duten famili bereko seme-alabek sasoi berean egindako ikastaroetan beherapena: 1goak %100ean ordainduko du, 2ak %50eko beherapena izango du eta 3.etik aurrera ikastaroa dohainik izango da.

e) Kiroldegia zabalik egon arren jai egunetan (abenduak 6, urriak 12, e.a.) ez da egongo ikastarorik

f) Ezinezko kasuetan bakarrik onartuko da kuotaren itzultzea (lesioak edo medikuak emandako bajak) eta jarduera hori abian jartzen lortzeko ez den kasuetan hileko lehenengo lau egunetan. Baita ere antolakuntza arazoagatik edo bestelako ezintasunagatik ikastaro batek hile baterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago beteten danean, emon bako denporaren arabera, zerrendako hobaria aplikatuko da, eta zenbateko hori deskontatuko da

galdutako klase ordu kopurua	hobaria
%0tik-%25era	%0
%26tik-%50era	%25
%51tik-%79ra	%50
%80tik-%100era	%100

g) ARTZA FRONTOIA

Dutxa bakarrik	1
Frontoia argi barik abonaduentzat	6
Frontoia argi barik abonadu ez direnentzat	10
Frontoia argiagaz abonaduentzat	10
Frontoia argiagaz abonadu ez direnentzat	17
Frontoia alokatzea	209.72
Frontoia ikuskizun bat emateko alokatzea	318.15

**ORDAINKIZUNAK**

6. ARTIKULUA.



A) Abonatu izaera lortzeko, beharrezkoa izango da, interesatuek, beren eskaria aurkeztea, Kirol Udal Patronatuko erregistroan, zera erantsirik:

### **Norbanako txartela**

- Nortasun Agirirako neurridun argazki bat.
- NAN, EHNA edo ENAren kopia, eta Busturiakoak izanez gero, gaurkotutako errolda egiaztagiria.
- Aurrezki Kutxa edo Bankuko kontu korronteko edo libretako zenbakia eta kontu jabearen izena.
- Kirol Patronatuko kontuan banketxeren batetan ordaindutako lehen errezioboaren egiaztagiria.

### **Sendiaren txartela**

- Jabe eta onuradunen Nortasun Agiriko neurridun argazki bat.
- Jabe eta onuradunen NAN, EHNA edo ENAren kopia. Busturiakoak izanez gero, gaur eguneko errolda egiaztagiria.
- Sendi liburuaren kopia eta familia ugaria izanez gero Eusko Jaurlaritzak ematen duen familia ugarien txartela.
- Sendiaren abonuan 21 urterarteko seme-alabak sartuko dira.
- Aurrezki Kutxa edo Bankuko libreta edo kontu korronteko zenbakia eta jabearen izena.
- Kirol Patronatuko kontuan banketxearen baten ordaindutako lehen errezioboaren egiaztagiria.

### **Elbarritua**

- Nortasun Agirirako neurridun argazki bat.
- NAN, EHNA edo ENAren kopia.
- Elbarritasun portzentajea ziurtatzen dauan Foru Aldundiak emandako agiria.

### **Berezia**

Langabetuen, ikasleen eta 65 urteko baino gehiago duten txartela

- Nortasun Agirirako neurridun argazki bat.
- N.A.N. edo E.N.A.ren kopia.
- Ikasle edo langabetuek ziurtagiri bat bere egoera egiaztatuz.

B) Abonatuei, bai sendiko eta baita norbanakoei ere, txartel bat emongo jake, pertsonala eta transferiezina dana, eta beharrezkoa dena kiroldegira sartzeko nahiz 2. artikuluan aipatzen dan instalakuntzetako zerbitzuren bat erabiltzen danean.

## **KOBRANTZA**



## 7. ARTIKULUA.

a) Erabilpen baimena hartzen dan une berean ordaindu beharko dira, esijigarri diran prezio publikoak.

b) Kuotak urtean behin (berezko urtea) sei hilabetero (Uztailetik-abendura) edo lauhilabetero (irailatik-abendura) ordaindu daitezke. Urdaibai txartelako kuota aldiz, berezko urtean edo azken lau hilabeteetan (irailatik abendura).

c) Helbideratutako urteko sendiko abonatuak aukera izango dabe ordainketa bi zatitan egiteko: %50a urtarilaren lehenengo hamabostaldian eta %50a apirilaren lehenengo hamabostaldian.

d) Kuotak urtearen lehenengo hamabostaldian edo, ordainketa motaren arabera, aldian aldiko 1. hamabostaldian ordainduko da.

e) Atzera itzultitako ordainagiriak Udalaren Kirol Patronatuaren kontu korrontean ordaindu beharko dira, abonatuari zorra nola ordaindu behar duen adierazteko bidaltzen zaion azalpenen arabera. Epean ordaindu ezean, besterik gabe, harpidedun izaera galduko dau.

f) Ordainketa bankuan helbideratu nahi ez dauan abonatuak urteari dagokion kuota Udalaren Kirol Patronatuaren kontu korrontean ordaindu beharko dau urtearen lehenengo hamabostaldian. Horrela egin ezean, baja izango da, berriro ere alta eskatu eta sarrera-gastuak ordaindu beharko daularik.

g) Abonatu batek baja eskatu nahi izanez gero, baja inprimaki ofiziala eskatu eta txartelak itzuli beharko dauz.

h) Baja eskatzeko epea berezko aldi bakoitzaren azken astean amaituko da.

i) Abonatuak ados ez balego ordaindutako kuotarekin, hilabeteko epea izango dau erreklamazioa eta kuota aldaketa eskatzeko justifikabide diren dokumentuak aurkeztuz. Kuota ordaintzen den egunetik hilabete pasa ondoren ez da onartuko inolako aldaketarik.

## AZKEN XEDAPENA

8. ARTIKULUA. Ordenantza hau baita bertan sartzen diran tarifak ere, 2013ko urtarilaren 1etik jarriko dira indarrean, aldatu edo indargabetu arte.

